

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Portugaleteko Udala****Oinarri-arau espezifikotako akats materialen zuzenketa 20/21 Legeko 6. eta 8. xedapen gehigarrien arabera.**

Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki hau, besteak beste, onetsi zuen:

«*Lehenik*: Portugaleteko Udalaren zerbitzura langileria aukeratzeko meritu-lehiaketaren hautaprobetako oinarri-arau espezifikotatik atzemandako akats materialak zuzentzea, 20/2021 Legeko 6. eta 8. Xedapen Gehigarriak jarraikiz. Oinarri-arauok Tokiko Gobernu Batzordeak 2022ko azaroaren 30ean hartutako erabakiaren bidez onetsiak izan ziren. Zuzenketa ondoren datorrena da:

1. 7. zenbakiko oinarri-arauotatik: Hirigintzako aholkulari juridikoaren lanpostuari dagokion oinarri-arau espezifikoa.

248 zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialetako 43. orrialdean, 2022ko abenduaren 30ekoan, atal honi dagokionez: 2.3. Parte hartzeko betekizunak;

— Esaten du:

«Oinarri-arau orokorretako 2.h) atalak dakarrenari dagokionez, Zuzenbideko, Administrazio Publikoko Zientzia Juridikoetako edo baliokideko unibertsitate-titulua izatea eskatzen da».

— Esan behar du:

«Oinarri-arau orokorretako 2.h) atalak dakarrenari dagokionez, Zuzenbideko, Administrazio Publikoko Zientzia Juridikoetako edo baliokideko unibertsitate-titulua izatea eskatzen da. Halaber, Hirigintzari eta lurralde-antolamenduari buruzko ikastaroa izatea, haren iraupena 400 ordukoa edo ordu-kopuru horretatik gorakoa izan behar delarik.

2. 9. zenbakiko oinarri-arauotatik: Enplegu, Autoenplegu eta Turismo Teknikariaren lanpostuari dagokion oinarri-arau espezifikoa.

248 zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialetako 49. orrialdean, 2022ko abenduaren 30ekoan, lanpostuaren izenari dagokionez;

— Esaten du:

«Erosketa teknikaria»

Plaza kopurua	Lotutako lanpostuak	Ezaugarriak (hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data, Destino Osagarria, Berariazko osagarria, betekizun espezifikoa, etab.)					
		Taldea	HE	Derrigortasun-data	DO	BO (€)	REG.
1	EROSKETA-TEKNIKARIA	A2	3	—	23	21.432,86	F

— Esan behar du:

«Enplegu, Autoenplegu eta Turismo Teknikaria»

Plaza kopurua	Lotutako lanpostuak	Ezaugarriak (hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data, Destino Osagarria, Berariazko osagarria, betekizun espezifikoa, etab.)					
		Taldea	HE	Derrigortasun-data	DO	BO (€)	REG.
1	ENPLEGU, AUTOENPLEGU ETA TURISMO TEKNIKARIA	A2	3	—	23	21.432,86	F

3. 10. zenbakiko oinarri-arauotatik: Erosketa Teknikariaren lanpostuari dagokion oinarri-arau espezifikoa.

248 zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialetako 53. orrialdean, 2022ko abenduaren 30ekoan, lanpostuaren izenari dagokionez;



— Esaten du:
«Udal aparejadorea»

Plaza kopurua	Lotutako lanpostuak	Ezaugarriak (hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data, Destino osagarria, Berariazko osagarria, betekizun espezifikoak, etab.)					
		Taldea	HE	Derrigortasun-data	DO	BO (€)	REG.
1	UDAL APAREJADOREA	A2	3	—	25	25.582,80	F

— Esan behar du:
«Erosketa teknikaria»

Plaza kopurua	Lotutako lanpostuak	Ezaugarriak (hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data, Destino osagarria, Berariazko osagarria, betekizun espezifikoak, etab.)					
		Taldea	HE	Derrigortasun-data	DO	BO (€)	REG.
1	EROSKETA TEKNIKARIA	A2	3	—	25	25.582,80	F

4. 33. zenbakiko oinarri-arauotan: Musika Eskolako irakaslearen lanpostuari dagokion oinarri-arau espezifikoak. Pianoa eta Hizkuntza Musikala

248 zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialeko 129. orrialdean, 2022ko abenduaren 30ekoan, lanpostuaren ezaugarrien definizioari dagokionez, esleitutako derrigortasun-datari dagokionez zehazki, esaten da hiru lanpostuetatik bik ez dutela esleitutako hizkuntza-eskakizunik eta baten data haxe dela: 2000/12/29.

Aitzitik, agertu behar du bi lanpostuk dutela hizkuntza-eskakizun esleituia, derrigortasun-datak hauexek direlarik, hurrenez hurren: 2000/12/29 eta 2022/05/11. Beraz, bakarrak ez du derrigortasun-datarik esleituta.

— Esaten du:

Plaza kopurua	Lotutako lanpostuak	Ezaugarriak (hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data, Destino osagarria, Berariazko osagarria, betekizun espezifikoak, etab.)					
		Taldea	HE	Derrigortasun-data	DO	BO (€)	REG.
3	MUSIKA ESKOLAKO IRAKASLEA. PIANOA ETA HIZKUNTZA MUSIKALA	A2	2	plaza 1: 2000/12/29 2 plaza: esleitu gabe	20	18.310,59	L

— Esan behar du:

Plaza kopurua	Lotutako lanpostuak	Ezaugarriak (hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data, Destino osagarria, Berariazko osagarria, betekizun espezifikoak, etab.)					
		Taldea	HE	Derrigortasun-data	DO	BO (€)	REG.
3	MUSIKA ESKOLAKO IRAKASLEA. PIANOA ETA HIZKUNTZA MUSIKALA	A2	2	plaza 1: 2000/12/29 plaza 1: 2022/05/11 plaza 1 esleitu gabe	20	18.310,59	L

Bigarrenik: Zuzendutako oinarri-arau espezifikoak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udal webgunean eta Portugaleteko Udaleko iragarki-oholetan argitaratzea, erabaki honen edukiak dakarrenarekin bat etorritik. Halaber, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen deneko dataren aipamena argitaratuko da, eskabideak aurkezteko epeari hasiera emateko xedez.

Hirugarrenik: Horren berri ematea Giza-baliabideen Sailari eta langileen ordezkariari. Portugaleten, 2023ko irailaren 28an. — Alkatea, Mikel Torres Lorenzo